01 20

PAGOAK MUGAN


Pagoa (*Fagus sylvatica*) fagazeoen familiako Europa erdialdeko zuhaitz ba da. 30 metro altuera izatera irits daiteke. Bere adaburua lerdena eta ganga-formakoa da; azala leuna eta arrea da; negu-ernamuin arreak, luzeak eta zorrotzak. Bere hostoak alternoak eta eliptikoak dira, eta 5 eta 10 cm arteko luzera dute, berde bizi koloreko 5 eta 9 arteko nerbio pareekin, goiko aldetik eta argiagoak beheko aldetik; udazkenean horixka bilakatzen dira eta ondoren, arreak. Fruituari ezkurra deritzo.

Euskal Herrian 600 m inguruko altitudetik aurrera haritza ordezkatzen dute eta Kantauriko Itsasoa eta Mediterraneoa zatitzen duten mendietan sarritan aurkituko ditugu. Oro har, pagadien lurrak orbelez estalita daude, zuhaizkako estratu bigunarekin eta belarkara estraktu urriarekin.

Aire argazkirako erabilitako hegaldi gehienak uda aldean egiten dira, baina 2009an hegaldi bat egin zen hostoak pagoetatik oraindik kimatu gabe zeudenean.

Aukeratutako ortoargazkiaren sektorea Euskal Herriko muga klimatiko eta biogeografiko argienetariko bati dagokio: Kantabriako Mendilerroko ipar eta hegoaldeko isurialdeari dagokiona. Kasu honetan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Errioxa arteko muga politikoarekin ere egiten du bat (Peñacerrada eta Abalos udalerriak).

Iparraldean, klima atlantikoa aurki daiteke. Bertan, hostorik gabeko pagoak ikusten dira, eta Mendilerroko gailurren lerroa osatzen duten harkaitzetatik hegoaldean, berriz, klima mediterraneoa aurki dezakegu. Bertan, zuhaitz gutxiago daude; gurbiztiak nagusitzen dira pago urriekin zuzeneko kontaktuan; azeri-mahatsa sarri aurki daiteke (Arctossaphykis uvaursi) oso maldatsuak diren eta higaduraren eraginpean dauden magalak estaltzen dituztela. Jaitsiera hasten den heinean, mediterraneo motako begetazioa ikusi ahal izango da, erkametztiek eta garrigek eratuta. Klima lehorrago bilakatzearen eginez, garrigak abaritz ugari dauka.



Peñacerrada (Álava). Ortofoto 2009. Fuente: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 524953 m // Y: 4716034 m // Z: 1097 m. 1 Bosque de hayas (clima oceánico). 2 Formación de carácter mediterráneo.

